

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Proiektuaren helburu bat, bezeroekiko harreman hurbil, laguntzaile eta orientatzaile bat sortzea da. Gure enpresak harreman konbinatua izango du ikasleekin; alde batetik automatizatua, webgunuaren bitartez, autonomia emateko, eta bestetik pertsonalagoa, posta elektronikoaren bitartez.

Bezeroekiko harremana mantentzea ezinebestekoa da, hau da, ikasleak proiektuan jarraitzea. Horretarako, gure webgunea guztiz eguneratuta egongo da, momentuan gertatzen denarekin, esate baterako unibertsitateetako graduren batean aldaketa bat badago. Horrez gain, komunikazioa etengabea izango da, aipatu bezala bai webgunea eguneratuta izaten, eta baita posta elektroniko bidez dituzten zalantzak azkar argitzen. Horrela ikaslea proiektuari konektatuta egongo da eta ez da inongo momentuan bakarrik sentituko, gure arreta osoa eta zuzena jasoko duelako. Beraz, gure proiektuak autozerbitzua eta laguntza pertsonala konbinatuko ditu, lehena webgunearen bidez eta bestea posta elektronikoaren bidez.

Bezero berriak erakartzeak, gure proiektua zabaltzea ahalbidetzen du eta hori da gure nahi bat. Ikasleak gure proiektuaz informatzeko webgunea erabil dezake, graduen informazioa irakurriz eta eskainiko ditugun saioen informazioa jaso, unibertsitateen errealitatea ezagutzeko aukerarekiko jakinmina sortuz.



Horrez gain, gure proiektua gehiago ezagutarazteko, sare sozialez baliatuko gara. Gaur egun ikasleen eguneroko bizitzaren parte dira, eta gure proiektua bertan erakutsiz ikasleek gure proiektuak ezagutzea ahalbidetuko dugu. Guk erabiliko ditugun sare sozialak Instagram eta Facebook izango dira. Egia da gazteek gehien erabiltzen duten sare soziala instagram dela, eta horregatik iruditzen zaigu aukera ona, baina facebook ere erabiltzea gehiago zabaltzearen gakoa izan daiteke, ikasleen gurasoak gure proiektuaren berri izan dezaketelako. Sare sozialetan, post bisualak igoko dira gure proiektua azalduz eta saioen oinarritzko informazioa emanez, ordutegiak, datak eta kokapenak. Betsalde, ikasleen baimena izanez gero, proiektuan parte hartu duten ikasle eta irakasleen testigantzak jasoko dira, interes eta konfiantza gehiago sortzeko. Horrez gain, gure webgunerako sarbidearen linka adieraziko da bertan ikasle edo gurasoek interesa izanez gero informazio gehiago ezgutzeko erraztasuna bermatuz.

Azkenik, ikaslea gure negozio-ereduan integratzeko, hau da bezeroa proiektura lotzeko, ikasleak haibat saiotan partze hartzeko aukera izango du eta baita gradu ezberdinak ezagutu eta probatzeko aukera. Guk bezeroak esperientzia positiboa izatea bermatu nahi dugu eta bere etorkizuna argitzen lagundu nahi diogu.

Ondorioz, bezeroarekiko harremanak, konfiantza sortzeko gakoa dira eta proiektuaren balioa handitzen dute. Gure onuraz gain, ikasleei esperientzia aberasgarria eskeintzen zaie, etorkizunean baliogarria izan daitekeena.